

## GOGOETARI LEIHO

## HEMEROTEKA

## San Telmoren itxiera eta Guggenheim koxkeroaren ezintasuna

**S**AN TELMORENAK EZ DU ERREME-DIORIK. Europako museorik probisionalenaren inguruan egin diren azken adierazpenak ezin ilun eta deitoragarriagoak izan dira. Elorza alkatearen iritziz, San Telmo Donostiako Guggenheim txikia da, baina askoz merkeagoa, eta Donostiak Kontxa eta Parte Zaharra dituenez, euskal hiriburu kulturala gara eta izango gara; San Telmo zer den eta hiriburu kultural batek zer behar duen adierazteko diagnostiko aldrebesagoa egiterik ba ote dago?

Gezurra da, diote, museoa itxi egin dela: mundu guztia onartzen da, baina museoa-ekin konpromezuak zituztenek —konpromezu ugari eta serioak ziren gainera— ahantz bezate esana eta idatzia. Guztiz lotsagarria da aurkeztu duten erakusketa eta obren behin-behineko egitaraua; bideratu diren plan museistikoaren neurri liliputiarren berri ematen du egitarau horrek. Arloko zinegotziaren esanetan, kultur aurrekontuak gora egin du, baina San Telmon ezin izango dira xemaikorik kostatzen ez duten proiektuak baizik gauzatu: gaixo bati bere medikua eta bere botika eritexera eraman dezan eskatzea bezain logikoa. Ahaztu egin zaie esatea, zabaldu behar den aretoak urteak daramatzala obratan, eta obra horiek San Telmoko defizita salatzen, lehengo zuzendaria egozteko, zenbait zor ahazten saiatu eta aurretik pentsatutako erakusketa programa bertan behera uzteko aitzakia izan zirela.

Erakundeek museo ona nahi dutela diote, eta horregatik arazoa aztertuko duen batzordea sortu dute. San Telmok gauza asko behar ditu, baina aholkulari batzorderik ez. Profesionalak kontratatu behar dira, eta lanean ezarri. Bitartekoak eta denbora eman behar zaizkie profesional horiei, erabakiak hartzeko autonomia eta lortu nahi denari buruzko enkargu zehatza: dela museo etnografikoa, dela arte garaikideko zentrua, dela ongi antolatutako museo balioaniztuna. San Telmo izan zitekeena hondatzen ari dira, ez den eta inoiz ezin izango den Guggenheim donostiar inozo baten izenean.

Udalak, Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak hainbat politiko, paleontologo bat, etnografo bat, artista-kritikari bat eta artista-museologo batek osatutako batzordea sortu dute, esaten denez. Ez da Euskal Herriko Unibertsitateko inor sartu (ez bait du interesik txikiena ere, eta inongo planetan ez bait da sartzen, diru aurrezpeneko planetan ez bada), eta ezta lehendik dauden zentru museistiko eta artistikoetan lanean ari den inor ere. Benetako pertsonalitate intelektual bakarra Jesus Altuna paleontologoa da, antropologia kulturalaren arloaren mugen barnean ikerketa lan benetan duina egiten ari den Aranzadi elkarte historikoko lehendakaria.

Ez da erraza asmatzea zertarako balio duen, hain heterogeneoa izan eta bere baitan hain profesional gutxi biltzeagatik, egungo egoeraren eta Gipuzkoak gaur egun museoaren arloan dituen beharrezko diagnostiko bat egiteko gauza ere ez den ba-



tzordea osatzeak, museo berri baterako proiektu zehatzik ere ez duen batzordea, San Telmoren egoera aztertzeko ez dago batzorde baten beharrik: ondareen katalogo bat, edizioaren egoerari buruzko informe teknikoa eta finantz gastuei zein pertsonalari dagozkion gastuei buruzko beste bat asko dira horretarako. Museo eta erakundeetako pertsonalarekin ere egin daiteke hori.

Gerora begira, museo baten proiektu bidegarria egiteko, erakundeek garbi esan behar dute zer eratako museo ordaintzeko dauden prest; museo etnografikoa nahi badute —eta hala dela dirudi—, zergatik ez da behingoz antropologia kultural, arkeologia eta museografiako profesionalen osatutako taldea eratzten, arkitekto eta berritzaileak ere barne dituela, eta haiei eskatu museo proiektu bat idazteko, egutegi eta aurrekontuekin? Ala, Guggenheimekin gertatu den legez, kultur munduan polemika sor dezakeen proiektu bat ezkutuan bideratu nahi dute, amaieran atzera ezin bota den erabaki batekin denok txundituta uzteko? Museo etnografiko batena da, itxurak direnez, Aldundiak aspaldidanik defendatzen duen aukera, eta Eusko Jaurlaritzak ere gudi horretara igo da orain, arteari eskaini behar dizkion diru guztiak zahutuko dituen Bilboko Guggenheim Museoari esker San Telmok museo artistiko gisa izan dezakeen etorkizunari buruzko kezketatik libre izango bait da aurrerantzean. Bere zineak eta bere Kultur Patronatua —Zinezale Subentzionatuen Miserikordietxea izateko itxura gero eta handiagoa du azken honek— ustiatu besterik egiten ez duen Udalak ez bide daki, aitzitik, San Telmorekin zer egin, xemaiko bat ez gastatzeaz aparte.

Sortu den batzorde aholkularia ikusita, nekez pentsa daiteke San Telmo arteari eskainiko museo izango denik. Batzordeko etnografoen joerak —unibertsitateko antropologorik ez izendatzea nahiko adierazgarria da— nolabait antropologia etnizista baten tesirik zaharkitu eta bukolikoenak hitzez hitz jarraituko di-

tuen museo bat egin nahiko dela pentsatzera garamatza. Hain zuzen ere, Unibertsitate publikoan krediturik batere ez duen antropologia baten esanen jarraitzaile beraz, *euskal gizonaren* erudia Cro-Magnon kaskezurrean eta Idiazabalgo gaztan oinarritzen duen antropologia baten esanen jarraitzaile.

Adierazgarri da zuzendaritza talde baten izendapenaren atzerapena ere. Zergatik ez da San Telmon legeak ere elkarte gastronomikoei ere derrigor eskatzen diena egiten? San Telmo likidazio prozesuan dagoelako ote da, eta horrenbestez, martxan jartzerik nahi ez denez, talde profesionalik ere behar ez delako, enplegatu batzorde batekin nahikoa delako? Kontraste handia ageri da Eusko Jaurlaritzak eta bere oinarrian dauden alderdiek Guggenheim Fundazioa ekartzeko erakutsi duten azkartasun eta zuzentasunaren, eta San Telmoko arazoari ekiten (?) ari zaion makaltasun eta nagitasunaren artean. Eta hori guztia, Guggenheim proiektuak oposizio publiko handia izan duen arren (ez da ahaztu behar, ordea, baketsua izan dela oposizio hori, luma bidez egina, autobidea eta bestelako hainbat gaitan ez bezalakoa, eta horrenbestez interes handirik ez duela izan). Ez ote da izango San Telmo erortzen utzi nahi dutelako, hari eta jasotzen saiatzeak mereziko ez duen egoera bateraino iritsi arte? Uda partean aurrekontu handiko erakusketa bat egitea asko lukete artearen arloan egin beharrekoa eginda dagoela esan eta lasai geratzeko; horixe bide da agintaritzaren goi mailatan duten *hiriburu kultural* erudia. Burutan ateratzen badute, larritik ordaindu beharko dugu. Iritzi publikoari mugitzeko garaia iritsi zaio, halako batean kultur hiriburu izate hori etorkizunik gabeko geriatriko bihurtuko ez bazaigu, sormena eta ideia berriak porrot egin edo erbesteratzea behartuko direneko geriatrikoa.

CARLOS MARTINEZ GORRIARAN

\* Erredakzioan itzulia.




NIKO ETXART

Kantaria

ARGIA

92ko

«Iparaldean, disko ekoizpen bat egon bada ez da sekula aipatua izan Hegoaldean. Baina alderantziz ez da gertatzen, Iparaldean ikusberak bait gara. (...) Gipuzkoan, komunikabideek bertakoei ematen diete lehentasuna eta beren ziliborrari begira egoten dira. (...) Bai Euskadi Irratia, bai Euskal Telebista, 'Argia' eta EGUNKARIA, gehien bat gipuzkoarrak dira eta hor badago zeozer. Gipuzkoarrek beren interesik hurbilena jarraituz lan egiten dute, kontuan hartu gabe euskaldunen artean badirela beste ikusteko erak eta mentalitateak».



XABIER OLARRA

Itzultzailea

SUSA

92ko apirila

«Azkenaldian jendeak serioago hartu du itzultze lana. Itzultzaile Eskola... Itzultzaile Elkarte... eman nahi izan zaio figura horri bere maila, ez dakit zenbateraino merezia, baina beno. Nik uste dut jendea ere saiatu dela, edo saiatu garelana txukun samar egiten. Garantiak zenbateraino dauden? Beno, neurri batean badaude, eta hori nik baino gehiagok ere esango dute. Badago plantila bat itzulpen tajuzko samarra egiten duena. Besterik gabe. Zer da hori egin behar den lan guztiarekin konparatuta? Hoge? Hogeitar? Pentsa horiek zer lan duten egiteko».

## IRAGARKI MERKEAK (943) 46 90 22

31 x 10 mm

EGUN BAT 480pta/211  
ASTEBETE 2.400 pta/1041  
BI ASTE 4.100 pta/1801  
HILABETE 6.300 pta/2751

31 x 15 mm

EGUN BAT 960 pta/421.  
ASTEBETE 4.750 pta/2081.  
BI ASTE 8.300 pta/3601.

ALTA  
MONPAS  
ORTZADAR  
RIKARDO ARREGI

euskaltegiak

DONOSTIA - ERRENTERIA

ALTA herria - 39 43 77  
MONPAS - 27 27 11  
ORTZADAR - 52 66 57  
URUMEA  
R. ARREGI - 46 46 55

31 x 33 mm

31x33  
MODULO

EGUN BAT 1.925 pta/841  
ASTEBETE 9.550 pta/4161  
BI ASTE 16.550 pta/7201  
HILABETE 23.250 pta/1.0101

31 x 33ko  
BI MODULO

EGUN BAT 3.850 pta/1681  
ASTEBETE 19.100 pta/8321  
BI ASTE 33.100 pta/1.4401  
HILABETE 46.500 pta/2.2001

31 x 33ko  
LAU MODULO

EGUN BAT 7.725 pta/3361  
ASTEBETE 38.300 pta/1.6641  
BI ASTE 66.250 pta/2.8801  
HILABETE 92.900/4.0401